

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

ARABAKO GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINITZA  
OROKORRAREN PROBINTZIako ZUZENDARITZA

**Ebazpena, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzarena, non, prozedura irekiaren bidez, bere jabetzako higiezinetakoa bigarren enkante publikoa iragartzen den**

Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioak baimena eman dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari ondoren zehazten den higiezina enkante publikoan besterentzeko:

Hirikoa: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko 1. zenbakian, beheko solairuan, B eta C atee-tan, Vitoria-Gasteizen (Araba) dagoen lokala, Vitoria-Gasteizko 3. Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoena, xehetasun hauekin:

— B atea: 13679 zenbakiko finka, 3954 liburukian, 317. liburuan, 77. folioan, 2. altuan inskribatua, 205,80 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikiarekin.

— C atea: 13681 zenbakiko finka, 3954 liburukian, 317. liburuan, 81. folioan, 2. altuan inskribatua, 196,20 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikiarekin.

Katastroko erreferentzia: 5959061100020011EQ eta 595906110000020012GQ.

Kargak eta zergak: karga hauek kargatzen dituzte bi finkek:

Argi eta bisten zortasunak, Gasteizko 217. liburukiko 13967 finkaren zazpigarren inskripzioan, 21. folioan jasotakoak.

Jatorriaren arabera: 6/11. 944 jatorrizko finkaren zatiketa horizontala, hirugarren inskripzioa, 3907. liburukia, 282. liburua, 108. folioa.

Jatorriaren arabera: 6/11.824 jatorrizko finkaren elkarketaren arabera, lehenengo inskripzioa, 3906 liburukia, 281. liburua, 71. folioa.

Jatorriaren arabera: 6/11.816 jatorrizko finkaren elkarketaren arabera, lehenengo inskripzioa, 3906 liburukia, 281. liburua, 65. folioa.

Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren kalifikazioa: energia-kontsumoa (kWh/m<sup>2</sup>/urte): 102,08 D. CO<sub>2</sub> isuriak (kgCO<sub>2</sub>/m<sup>2</sup>/urte): 25,38 D.

Finkaren tasa bostehun eta bost mila seiehun eta hirurogeita bost eurokoa da (505.665,00 euro), eta zenbateko hori izango da lizitazioaren gutxieneko tasa.

Lizitazio-tasaren ehuneko 5eko bermea: hogeita bost mila berrehun eta laurogeita hiru euro eta hogeita bost zentimo (25.283,25 euro).

Enkantea 2021eko otsailaren 16an izango da, 10:00etan, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzaren Batzar-gelan, Wellingtongo Dukearen kaleko 31. zenbakian, Vitoria-Gasteizen (01010).

Enkantea Baldintza-agirian ezarritako administrazio-baldintzei jarraituz arautuko da. Interesdunek eskura dezakete Baldintza-agiria Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzan, Wellingtongo Dukearen kaleko 31. zenbakian, Vitoria-Gasteizen (01010) eta Gizarte Segurantzaren web orrialdean [www.seg-social.es](http://www.seg-social.es).

Halaber, interesdunek 2021ko otsailaren 5aren 14:00 orduetara arte proposamenak aurkez ditzakete gutun-azal itxian, Arabako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintziako Zuzendaritzaren Erregistro Nagusian.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 30ean

*Probintziako zuzendaria*

*AMAIA PALACIOS RUIZ DE AGUIRRE*